

giltza

IÑIGO ASTIZ

E
l
k
a
r
r
l
r
a
k
u
r
r
i
z

bildu, zimurtu, tolestu, bildu, okertu, murriztu, bihurritu, pikartu, zanpatu, soildu, puskatu, ezpaldu, zatikatu, moztu, zerratu, erortzen utzi, kendu, sinplifikatu, desantolatu, ireki, nahasi, zipriztindu, korapilatu, isuri, inklinatu, kurbatu, altxatu, inkrustatu, markatu, lohitu, biratu, sostengatu, kakotu, airean eutsi, hedatu, zintzilikatu, batu, tentsioz, grabitatez, entropiaz, naturaz, taldez, geruzaz, fieltroz, heldu, estutu, fardeldu, pilatu, jaso, sakabanatu, antolatu, konpondu, baztertu, bikotetu, banatu, gainezkatu, gehitu, inguratu, itxi, borobildu, zulatu, estali, batu, induskatu, lotu, bendatu, bilbetu, kidetu, berdindu, xaflatu, lokarritu, ardaztu, markatu, hedatu, diluitu, argitu, modularu, destilatu, olatuz, elektromagnetismoz, inertziaz, ionizazioz, polarizazioz, errefrakzioz, mareaz, orekaz, simetria, frikzioz, luzatu, botatu, ezabatu, ihintzatu, sistematizatu, aipatu, behartu, mapatzeaz, kokapenez, testuinguruz, denboraz, karbonizazioz, jarraitu



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

IÑIGO ASTIZ

Giltza

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Zerk egiten du ipuin bat?

Richard Serra artistak ondorengo ekintza zerrenda idatzi zuen eskuz paper batean.

bildu, zimurtu, tolestu, bildu, okertu, murriztu, bihurritu, pikartu, zanpatu, soildu, puskatu, ezpaldu, zatikatu, moztu, zerratu, erortzen utzi, kendu, sinplifikatu, desantolatu, ireki, nahasi, zipriztindu, korapilatu, isuri, inklinatu, kurbatu, altxatu, inkrustatu, markatu, lohitu, biratu, sostengatu, kakotu, airean eutsi, hedatu, zintzilikatu, batu, tentsioz, grabitatez, entropiaz, naturaz, taldez, geruzaz, fieltroz, heldu, estutu, fardeldu, pilatu, jaso, sakabanatu, antolatu, konpondu, baztertu, bikotetu, banatu, gainezkatu, gehitu, inguratu, itxi, borobildu, zulatu, estali, batu, induskatu, lotu, bendatu, bilbetu, kidetu, berdindu, xaflatu, lokarritu, ardaztu, markatu, hedatu, diluitu, argitu, modulatu, destilatu, olatuz, elektromagnetismoz, inertziaz, ionizazioz, polarizazioz, errefrakzioz, mareaz, orekaz, simetria, frikzioz, luzatu, botatu, ezabatu, ihinzatu, sistematizatu, aipatu, behartu, mapatzeaz, kokapenez, testuinguruz, denboraz, karbonizazioz, jarraitu

1967koa da obra, eta bi orritan idatzitako bi zutabeko hitz zerrenda bat baino ez da, funtsean. «Norbere buruaren, materialaren, lekuaren eta prozesuaren arteko harremanak sortzeko ekintzak» dira, artistaren beraren hitzetan. Arte kontzeptualarekin eta ekintza artearekin zuen gertutasunaren lekukotza ematen du zerrendak, eta hurrengo urteetan bere lanean egingo zuena biltzen duen programa moduko bat ere bada. Arreta deitzen dit ekintza horiek idaztearen ezdeuskeriaren eta ekintza horiek gerora industrian baliatutako materia pisutsuei aplikatzearen esfortzuaren arteko kontrasteak, eta, era berean, mesfidantza eragiten dit zerrenda horren muturreko garbitasunak; zirriborrorik gabe, zuzenketarik gabe, garbira pasatuta, alde bakarretik idatzita, eta hain erabat materia gabeturik. Agerpenaren atarian, desagertuaren muga. Funtsean, tradizionalki, materia lantzea izan delako eskultore baten langintza, eta, aldiz, ia materiagabea delako eskultore honen zerrenda. Eta, halere, gero materia bihurtuko direnean sortuko den tentsio guztiak biltzen ditu da zerrendak. Eta tentsio horrek mantentzen du bizirik. Zein da ipuin bati ezinbestekoa zaion materia?

Serraren zerrendaren ispiluan, egun batez, ipuin bat idazteko kontuan hartu behar nituzkeen elementu guztien zerrenda bat egiten hasi nintzen koaderno batean, eta erabat zikin, zirriborratuta, mantxaz beteta, amaitu gabe utzi nuen nire zerrenda.

narratibotasuna, erritmoa (elipsia, presentzia), fondoaren eta figuraren arteko tentsioa, sekuentziazioa, fokua, gertakarien denboraren eta kontakizunaren denboraren arteko harremana, fidagarritasuna, idatzizkoaren eta ahozkoaren arteko desajustea, hitz hautaketa, erregistro linguistikoa, finalitatea, sinesgarritasuna, irakurlearekiko konbentzioa, oinordetzan jasotako konbentzioak, giza errealitatearen geruzen (sozial, politiko, intimo, oniriko, sinboliko...) nahastea, pertsonaien autonomia, lengoaiaren formalizazioa, zaratarekiko jarrera, gaiaren eta kontaearen arteko erlazioa, zehaztasuna, zehaztasuna mota aldakorra, planoan dagoenaren eta ez dagoenaren arteko harremana, kontatzailearen eta kontatzen denaren arteko distantzia,

Ezinezkoa iruditu zitzaidan ipuin batean inplikaturako elementu guztiak kontuan hartuta ipuin bat idatzi ahal izatea. Etsigarria suertatu beharrean, ordea, ezin emankorragoa egin zitzaidan hori. Hasteko, ez nuen zertan ipuinik idatzi, eta hori berez zen askatzailea, baina, horrez gainera, kontuan hartu beharreko elementuen gainezkatzeko horrek edozer onartzeko aukera zabaltzen zidan. Askatu egin ninduen «ipuinak» idaztetik, eta, beraz, idatz nezakeen, agian, zorte pixka batekin, baita ipuin bat ere.

Serraren zerrenda amaitzen duen aditzari itsu-itsuan heltzen diot orain —jarraitu—. Nire zerrenda hura itxi gabe bukatzen duen koma horri ere bai.

Zirrikitu horretatik sartzen da hona.

Ez zen hau kontatu nahi nizuena

Ipuinak idaztea da tranpa bat eraikitzea, poltsikoan topatzen dituzun hondarrekin, arrotz zaizun oihan batean igarri bai, baina sekula ikusi gabe duzun piztia bat harrapatzeko. Gehien-gehienetan tranpak ez du ezer harrapatuko; ziurtatu ere, azken batean, ezin baituzu ziurtatu zuk ahul sumatutako piztia hori existitzen denik; gutxi batzuetan, mugimendu arrasto solte batzuk igarriko dituzu tranparen inguruan, eta, inoiz, animaliairen bat tranpan bete-betean erortzen den salbuespenezko kasuetan ere, ezingo duzu gainetik kendu susmoa: harrapatu duzun animalia hori, agian, ez delako hasieran igarri zenuen piztia bera, haren ordezkari abere ezdeusago bat baizik, dela behi bat edo ardi bat, baina edozein kasutan, horrelakoetan ere, ospatu egingo duzu izan duzun zortea, esan bezala, ohikoena baita, gehien-gehienetan, ezer ez harrapatzea. Baina ez, ez zen hori kontatu nahi nizuena. Baina zer zen?

Ipuin labur horrek laburtzen du, gutxi gorabehera, idaztearen —orokorrean— eta ipuinak idaztearen —konkretuki— ekintzarekiko nire jarrera.

Baina azken ipuin luzea —ejem— idatzi nuenetik, zalantza egiten dut inoiz berriz ipuin luzerik —ejem— idatzi ahalko dudan. Eta oraingoan, ipuin bat da eskatu didatena, giltzari buruzkoa, edo giltza abiapuntu duena, eta, beraz, oraingoan ere, nola edo hala zerbait asmatu beharko dut poltsikoan topatzen dudanarekin. Eta ariketa horren lekukotza da testu hau, finean. Nahiz eta ez dakidan aski ote den ipuin txatalekin osatutako testu bat bidaltzea, ipuin bat idazteko enkargua bete duzula esan ahal izateko. Zenbat ipuin txatal behar ditu testu batek ipuin kontsiderazioa lor dezan? Askari izan daiteke giltza gai duen ipuin bat idatzi beharrean, ipuin bat gordetzen duen —gorde dezakeen— testu bat idaztea?

Eskulturaren diziplina, gaur egun, lurrean erori, puskatu, eta mila zatitan alde guztietarantz hedatutako ontzi bat bada, zergatik ez da izango posible ipuingintza puskatu bat?

Abian ditudan edo erdi bukatuta ditudan kontakizunak faltsuak iruditzen zaizkit. Eta are faltsuagoak iruditzen zaizkit zirriborro izatetik harago heltzeko behartzen ditudanak.

Zirriborroan iruditzen zaizkit obra asko ederren. Eta fase horretan ez bada, fase horren mugakide mantendu nahi nuke testu hau ere.

Nekez onartzen diot neure buruari beste idazleei pozez onartzen dizkiedan konbentzioak. Forma bera lehen lerroan jarrita egin nahi izaten diot ihes arazo horri batzuetan. Konbentzioa bera bilakatzen dut ipuin. Horrela ere ipuin izan daitekeen probatzen dut. Gero horretan saiatu eta zalantza egiten dut. Horregatik sentitzen dut barkamen eskari bat ere izan behar lukeela testu honek, narrazio proposamen bat bezainbeste. Ipuingintzatik ateratzeko keinu bat da testu hau beharbada? Ipuin bat amaitutzat ematen dudanero sentitzen dut akaso ezingo naizela sekula bueltan itzuli. Nahikoa izan dezaket besteek idatzitakoarekin? Edo, bestela planteatuta, zergatik ez dut aski besteek idatzitakoarekin? Zergatik ez hor geratu? Seguruenik, galdera horretan ezkututzen da hurrengo ipuinak idatzi ahal izateko gakoa —giltza?—, baina ipuin bat idazteko horretarako beharrezko diren elementu guztiak kontuan hartzea bezala, ezinezkoa da galdera horren erantzunari formulazio bat eman, eta, halere, ipuinak idazten jarraitzea —jarraitu—.

OHARRA: Agian-ipuin honek, agian, ipuin arrastoak izan ditzake.

Jon Alonso idazleak Etxe hartua tituluarekin itzuli zuen Julio Cortazar idazle argentinarraren ipuin ezagunaren titulua, Antologia apetsatsua izenburuko bildumarako. Narrazio horretan, esaterako, lehen mailako garrantzia du giltzak kontakizunean. Senideek utzitako etxean bizi dira Irene eta narratzailea ere baden haren neba. Etxea garbitzeaz, literatura frantsesa irakurtzeaz eta trikotatzeaz aparte ez dute egiteko handirik. Horrez gainera, ez dirudi ez bata ez besteak umerik izateko asmorik dutenik, eta, testuak esplizituki zehazten duenez, eurekin amaituko da sendi horrek etxe horretan egingo duen bidea. Une batean, etxea hondatzen uzteko asmoa ere adierazten du bikoteak, etxea beste inork erosi dezakeela edo lehengusu urrunen batzuek diru gose hutsez saldu dezaketela irudikatuta. Egun batez, ordea, narratzaileak zarata batzuk entzuten ditu erabiltzen ez duten etxearen aldean, eta berehala igartzen du arriskua. «Atearen kontra oldartu nintzen beranduegi baino lehen, kolpean itxiz, gorputza bere kontra bermatuz; zorionez, giltza gure aldetik zegoen jarrita, eta gainera morroilo handia itxi nuen segurtasun handiagoa edukitzeko».

Ez dute gehiago ate hori irekitzen, eta, liburutegia etxearen parte hartuan geratu den penarekin ere, aurrera jarraitzen du egunerokoak neba-arreben etxean, harik eta egun batean etxearen beste parte bat hartzen duten arte. Ipuinak ez du gertatzen denari buruz hori baino askoz gehiago zehazten, eta hortik datorkio titulua ere. Hartu egiten dute etxea. Nork? Zergatik? Susmoak baino ezin ditzake izan irakurleak. Eta justu bukaeran dator giltzen bigarren aipamena. Etxearen beste parte bat ere galdu dutela ikustean, izuak jota eta ozta-ozta lortzen dutelako kalera ateratzea, eta sekula ezingo direla itzuli jakinik, etxetik urruntzen joango dira

neba-arrebak. «Urrundu baino lehen errukitu nintzen, sarrerako atea ondo itxi eta giltza estoldara bota nuen. Ez zedin gizajoren bat, lapurtu nahian edo, etxean sar, ordu hartan eta etxea hartuta egonda».

Eta, paradoxikoki, ehunka izan dira Cortazarren ipuin horretara euren ipuinaren bila itzuli diren idazleak. Ni neu barne, oraintxe bertan. Eta, nirekin batera, zu zeu ere.

Zergatik ez geratu jadanik besteek idatzitakoarekin?

Bizi naiteke besteen ipuinetan.

Samanta Schewblin idazle argentinarraren El buen mal ipuin bildumako lehen narrazioa irakurri dut duela egun batzuk. Perfektua da haren fikzioaren mekanismo osoa. Schweblinen ipuinetako etheen ateak askotan egoten dira giltzaz itxi gabe. Hori da lehen ipuin horren kasua ere. Norbaitek leiho bat uzten du irekita, ate bat ixtea ahazten zaio norbaiti, norbait sartzen da etxe batean. Eta ez detaile horregatik bakarrik, baina detaile horregatik ere bai, egunerokoaren alderik ilunenak argitzen ditu liburuko lehen kontakizun horrek. Negargura izan dut. Kontatzen duenagatik. Kontatzeko asmatu duen teknikagatik. Nire ipuinetan faltan dagoen guztiagatik. Atea irekita utzi du. Zergatik ez haren ipuinekin geratu, beraz?

Tabua izeneko ipuin bat badu Enrique Anderson Imbert idazle argentinarrak, esaterako.

OHARRA: Ipuingilea bazara, eta, gainera, —barka erredundantzia— argentinarra, %90eko aukerak dituzu seguruenik-ipuin honetan aipatua izateko.

Ipuin hori baino ez diot irakurrita nik, baina irakurri nuenetik urteak joan diren arren, bizirik dut oraindik irakurri nuen lehen aldian eragin zidan zirrara. Interneten topatu dudaren arabera, guztira, 46 liburu eman zituen argitara, eta, ipuin bildumak, saiakerak zein nobelak biltzen dituen obra oso horretatik, ipuin bakar bat da irakurri diodana, zeinak 30 hitz baino ez dituen, eta zeinak aldiro sortzen baitit irribarrea. Eta nekez apenas ia ezer ez den hori baino ipuingintzaren aldeko argudio indartsuagorik...

Tabua

Aingeru guardakoa Fabianen sorbaldaren atzean jarri eta xuxurlatzen dio:

-Kontuz, Fabian! Ezarrita dagoenez, «zangolotino» hitza ahoskatzen duzun momentuan hilko zara.

-Zangolotino? —galdetzen du Fabianek larrituta.

Eta hil egiten da.

«Nondik hasi?». Diskurtsoari berari buruzko hitz auto-erreferentzial horiekin abiatu zuen Annie Ernaux idazle normandiarrek Nobel Saria jasotzeko zeremonian eskainitako diskurtsoa, eta Joannes Jauregik itzuli zuen Egan aldizkarirako.

«Nondik hasi? Dozenaka bider egin diot galdera hori neure buruari orri zuriaren aurrean. Esaldi bat aurkitu beharko banu bezala, esaldi jakin bat, liburua idazketan sartzen utziko didana eta duda guztiak kolpe bakarrean uxatuko dizkidana. Giltza suerte bat». Eta bere liburuetan maiz egin ohi duen bezala, diskurtso horretan bertan ere, esku artean zerabilen lanari buruzko gogoeten haria esplizitu eginez topatu zuen hitzaldi hori hasteko modua. Hasteari buruzko zalantza adierazten duen hasiera horrekin. Baina berehala jo zuen sakonagora: «Ez dut urrutira joan beharrik esaldi horren bila. Berez jaio da. Bere biluzean, bere bortitzean. Hotz eta motz. Itzulezin. Duela hirurogei urte idatzi nuen nire eguneroko intimoan. 'Nire arraza mendekatzeko idatziko dut'».

Eta beste atedun ipuin ezagun baten aipamena egiten du idazleak gero, bere misioaz aritzeko. «Bikote-bizitzan sartuta, eta bi umerekin, familiako intendentziaren arduradun eta lanbidez irakasle, eguna joan eta eguna etorri urrunduz nindoan idazketatik eta nire 'arrazaz' mendekatzeko promesetik. Ezin nuen Kafkaren Prozesua-ko Legearen aurrean irakurri, nire destinoaren figurazioa ikusi gabe bertan: hilko nintzela, hil, neuretzako propio egindako atea zeharkatu ere gabe, neuk baino idatzi ezin nuen liburua, alegia».

Ederra eta argia da hitzaldia, hasi eta buka, eta bere literaturari ezarritako misioa adierazteko duen modu gardena da gehien inpresionatzen nauena. Bere klase soziala mendekatzeko asmo horren formulazio transparenteak. Niretzat, ahoskatzea lortuz gero, apurtu egiten den misterio bat dago galdera horren erantzunean.

Zertarako idatzi?

Hori orokorrean.

Eta zertarako idatzi ipuinak?

Hori konkretuki.

Eta sentitzen dut idazten jarraituz bakarrik gerturatu naitekeela galdera horrentzako erantzun posible bat ematera.

Gero, idazteari utzi, eta berriz geratzen naiz oso ongi jakin gabe.

Kritika posiblea, bat (txarra):

giltza atean sartu ezinik balebil bezala idatzi du.

Kritika posiblea, bi (ona):

giltza atean sartu nahi ez balu bezala idatzi du.

jarraitu

Enrique Vila-Matas idazle —hau ez— kataluniarrak, Jorge Luis Borges idazle —hau bai!— argentinarraren hitzak gogoan hartuta, ahozkoasuna aipatzen du ipuinen gutxieneko ezaugarritzat Mac y su contratiempo izeneko lanean. Liburua bera saiakeraren, nobelaren eta ipuin bilduma baten arteko hibrido bat da, eta, bere formaren bila dabilen testu baten tentsioa dauka. «[Borgesek] esaten zuen [nobelak] urrunegi zeudela ahozko formatatik, eta horrek eraman zituela solaskide zuzen baten presentzia galtzera, esan beharrik ez dagoena eta elipsia beti posible egingo lituzkeen norbaiten presentzia galtzera, eta, horrenbeste, baita kontakizun laburren eta ahozko kontakizunen zehaztasuna galtzera ere. Borgesen arabera, ez da ahaztu behar, entzulearen presentzia hori, kontakizuna entzuten duenaren presentzia hori arkaismo bitxi bat da, baina, hain zuzen ere, partez behintzat, ipuinek zaharkin horri esker iraun dute bizirik, entzulearen figura hori mantendu dutelako, iraganeko itzal hori».

Itzal horrek senidetu dezake agian ipuingintza poesiarekin, eta itzal horri ari natzaio ni ere hemen. Zuri. Agian zurekin. Aski izan daiteke hori?

Roman à clef.

Giltzapeko nobela.

Frantsesez izen hori hartzen du esplizituki aipatu ez arren irakurleak ulertzeko moduan errealitateko gertakari edo pertsonen hitz egiteko sortzen diren fikziozko lanek.

Aldi berean lortzen dute sekretu bat gordetzea, eta hura bistaratzea.

Giltzapeko ipuina.

Prado museoan badago lehenengoz ikusi nuenean bereziki hunkitu ninduen Velazquezen koadro bat. Calabacillas izeneko bufoiaren erretratua da. 1635 eta 1639 urteen artean margotu zuen artistak eta olio lan bertikal bat da, metro bete pasako altuera eta metroa baino laburragoko zabalerara duena. Lurrean eserita ikus daiteke gizona, eta koadroaren atzealde eta jantzi ilunekin kontraste eginez, haren aurpegia eta eskuak nabarmentzen dira, eta farfaila zurien apaindurek azpimarratuta dirudite bi elementuek, gainera. Lanbrotsu antzean utzi zuen pintoreak bufoiaren aurpegia, baina espresio bizia du —irribarrez— eta horrek ere eskuineko belanaren gainean elkarrekin bilduta dituen eskuetara darama berehala ikuslearen arreta. Sekretu bat ezkututzen dio ikusleari. Baina zein?

Hain justu ere, galdera hori egin zien TVE telebista kateak museoko hainbat bisitariri — orrazkera eta janzerengatik— 80ko hamarkadaren bueltan, Mirar un cuadro programarako. Bufoia itsua dela uste du emakume batek. Haren argiari buruz egiten du gogoeta gizon batek. Barrokoa dela diote. Erdi Arokoa dela. Ia-ia inpresionista dela. Harentzat koadroak ez duela interesik esaten du gero beste emakume batek. Baina jendeak emandako erantzunen artean, bada bereziki bizia iruditzen zaidan bat. Bideoan, Velazquezen pertsonaiaren satisfazio mailaz eztabaidan ari dira ingelesez gizon bat eta emakume bat, haiekin dagoen hirugarren lagunak zera esanez eteten dituenen: «agian zer ezkututzen ari den da benetan jakin nahi duzuna, duen irribarregatik, badirudielako txori bat askatzeko puntuan dagoela». Eta gogoan dut, bideoa ikusi nuen lehen aldian, bat-batean nola sentitu nuen txori horren lumen laztana nik ere nire eskuetan. Eskuak askatuz gero, irudi luke hegan aterako dela. Eta hori da koadroaren garaipena, bufoiaren aurpegian sufrimendu izpirik islatu gabe, esku artean sekretu bat ezkututzen duela promes eginez, ironia sortzen duelako pintoreak, bufoiaren irribarrearen bidez esanez itxura dela dena, edo, nahiago bada, forma; eta, halere, itxura hori ere, forma hori, gai dela eskuetan kilimak pizteko.

Testu honek ere ipuin bat ezkututzen du.

Ezkutatu dezake.

Eta ondorengo ekuazioa askatuz irakurri daiteke ipuin hori.

$x=d$

9'89jm9r49w

g9o064 hw6 w9545'0568wjñ 4s6wgw9rwj w59 r95wñ 0'05546w69o 96s8p6so0
u4ywso9j45wo06dw564pwo 450e9 r9684jw uwjow ew568 r8ñ u9pwh464 y450wy0o0wo
r95wñ yw9so9 8p4568wo 05r85w w564 4pow559 4so86w686wo0 h4e64 uwkw9ow yw8sw
w85'4y95w6s45w rw5wkw6sw h9o064o9r4wol 46w h4e64 6dw564p hw6 450e96w 4y8j
h454wj 96s8p6s4w p056s4j r864n w554n, p85 uw56s45wo0 h4549s9 4y964j r95w h4695wo0ñ
u9pwh46454j 0e64wjl 0'055wpr94j u959o0 w954'0568wj u4ywso9j4o0 pwjy9p44o
4pow554o9j wu0eow6s4j r968s64 h9o064o0 h9 o9r44j wh9s4jwo w954'0568o0 h0sy05w9p8
y8s6946w69il 46d45w 4pow554o9j 96s8pw5ws9o0 r9684j u4ywso9j45w 9y06s4o0 wso4j
r49w r864pw 4ew64o0ñ twj6wekw hw6 hw9j0 4s rwl 05r4wñ 09uw56s8j hw6l g4u9j 9swj s4j
s45hw96 uw54nwñ

Formaren ihesa.

Raymond Queneau idazleak Estilo ariketak lanean anekdota itxuraz garrantzi gabe bat hartu, eta haren 100 bariazio proposatu zituen. Guztien euskarazko ahaidea sortu zien Xabier Olarra itzultzaileak, eta sorkuntzaren mugakide da haren lana. Edonola ere, lehen-lehenik, anekdotaren zero bertsioa ematen hasten du liburua Queneauk.

Feltrozko kapela daraman tipo bat goraino betetako autobus batean doa. Norbaitek bultza egin eta haserretu egiten da aldamenekoarekin. Eserleku huts batean esertzen da gero. Handik bi ordura, Cour de Rome-n topatuko du narratzaileak berriz, kasu horretan, soingainekoari botoi bat jarri behar liokeela esaten dion lagun batekin hizketan.

Eta abiapuntu horretatik hasita, aldiro forma moldatuta kontatzen du istorio bera gero idazleak, orriz orri.

Forma da gaia.

Poema abangoardista batekin kontatzen du anedota. Kontatzen du soneto baten forman. Kontatzen du hirugarren pertsonan. Elkarrizketa formatuan. Inbentario modura. Text osoa angilizismoz full utzita. Autobuseko beste bidaiarien ikuspegitik. Esaldi guztiak harridura markekin amaituz. Eta, oker gogoratzen ez badut, kontatzen du ere idazmakinan hatzak ohikoaz bestelako kokapen batean jarritz. Anekdota behar baino tekla bat gorago idatziz, esaterako, edo hatza behar lukeena baino tekla bat eskuinerago pausatuz. X tekla jarri ohi den hatza, adibidez, c tekla jarritz, edo, x tekla beharrean, hatza d letran jarritz. Eta, gogoratzen dudanez —edo akaso oker oroitzu asmatu dudanez— tituluari bertan zehazten du zein den testua idazteko egin duen aldaketa minimo hori.

Eta, beraz, hau da ipuina askatzeko erabili beharreko ekuazioa oraingoan.

x=c

aoiom ofros

nolpyr nsy sotr`ptyism- rxysnsofsm st fots p`pttrysyol oxyiñyxrllp jrhsxlo`rtslp ydstyrñisl rtpdo foyirmsl jsmls dstyi fi- joñsnryr hrtpshptslp fots- hsoxlo iñrtyislp ptfits styr rxliysyiyslp nrdir jssols hsixss sit`rhotsyxrts fsts,syxs nolpyrlofrsl. rys nrdir ydstyrñ nsy rtpdoys rhim nrtrsm oxyiñyxrsl ñptyxrm fiyrm sttrm. iñt jstyxrtslp nrtorxo rhoym fotsnryotslp- joñsnryrtrm pdyrsm. p`pttsñform jotolp sot`rptyism. jrhsxlorlp ñsmhoñrrl rñlsttrom sjpdlsyxrm foyixyr nolpyrlp no lofrrm snoxrmsl sotr`ptyilp npxhptsoñi hixyorysyol, rycrts rñlsttrlom oxyiñstxolp foyirm jrhsxlomrts ohpyxrlp sxlrn fros fiyrñs rdsyrlp- gsmysd,s nsy nsomp rx fs. ptfirs- pojstyxim nsy. nrjom oxsm xrm xrtsoy jstrms-

Baina Queneauk garden ematen dio irakurleari lehenik, gero ezkutuan ematen diona. Kortesia kontu bat izan daiteke.

Ez nuke gutxiago izan behar.

OHARRA! Jadanik-ia-ia-ipuin honetako ekuazio guztiak fikzio hutsa dira, eta ez egilea ez eta argitaratzailea ere ez dira errealitatearekin izan dezaketen antzekotasunaren kargu egiten.

Eta orain bai, hau da zero testua, beraz.

x=x

Ipuin ideia

Bikote bat aireportuan. Eztabaidan ari dira. Oporretatik itzultzeko hegazkinerako txartelak erosi dituenak hanka sartu du. Hilabete geroagorako dira. Gaizki ulertuak ordura arte elkarri ezkutatutako beste hamaika gauza aurpegiatzeraz daramatza bikotekideak, eta beste txartel bat erositako egun berean itzultzea lortzen duten arren, lur hartzerako bereizi egiten dira betirako. Hilabeteren ostean, oporraldien hiriko aireportuan, hegazkinetako langileek elkarrekin ahoskatzen dituzte bikoteko bi kideen abizenak aireportuko bozgorailu guztietatik, etxera elkarrekin itzularaziko dituen hegazkinera igotzeko azken deia dutela esateko. Fantasma bat baino ez da, ordea. Oihartzun bat, behin izan zen zerbait harena.

Badaude ezkutuan ibili beharraz bestelako aukera batzuk ere.

Zimurtu aipatzen du Serraren zerrendak, murriztu, eta, noski, ezabatu.

ezabatu

Eta ezabatzen doan ipuin bat idatzi zuen, hain justu ere, Gabriel Arestik.

Olerkaria. Denporatik ateratzen den probetxuaren ipuin barregarria.

Olerkari bat da protagonista, noski, nahiz eta —noski— beste bat duen ogibidea. Kontularia da, kasu honetan. Bitasun horregatik, koadernoan apuntatutako numero bakoitzaren truke, bertso bateko puntu bat idazteko erronka ezartzen dio bere buruari. Eta hor hasten ditu Arestik ipuinaren lehen parteko akumulaziozko datuak.

Minutuko bi zenbaki eta bi puntuko abiadura konstantean, betiere.

«Minuto bakoitzean numero 2 (bi) eskribitzen zituen, eta puntu 2 (bi) bere paperetan. Nola orduak 60 (hirurogei) minuto dituen, 120 (ehun eta hoge) puntu eskribitzen zituen ordu bakoitzean, eta egunean 1.440 (mila laurehun eta berrogei) puntu. Urtean 300 (hirurehun) egun lan egiten zuen. Horregatik urtean 432.000 (laurehun eta hogeta hamabi mila) puntu eskribitzen zituen. Urteak joan eta urteak etorri, 50 (berrogeta hamar) urteak bete zituen arte eskribitzen iraun zuen. Honela bere bizitzean 14.256.000 (hamalau miloi berrehun eta berrogeta hamasei mila) puntu eskribitu zituen».

Baina bere testuak gordetzeko espazio gabe geratzen da azkar batean poeta, eta orduan pizten zaio zalantza. «Gehiegi idatzi dut. Hainbeste bertsoren artean, gauza balio-gabe asko ez ote da egonen?».

Eta zalantza piztearekin batera, orduan hasten da ipuinaren fase ezabatzailea. «Gauza bat erabaki zuen:», dio ipuinak, «bere liburu guztiekin beste haundiago eta luzeago bat eginen zuela. Liburuak launa hartzen zituen, eta sobra zeuden bertsoak kendurik laurekin berri bat egiten zuen, eta honela 898 (zortzirehun eta laurogeta hamazortzi) liburu geratu zitzaizkion. Hauekin beste hainbeste egin zuen eta 214 (berrehun eta hamalau) geratu. Hauek atzera bildurik, 53 (berrogeta hamahiru), gero 13 (hamahiru), eta azkenean 3 (hiru). Hiru hauekin azkenean bat bakarra egin zuen. Hau egiteko, 40 (berrogei) urte tardatu zuen; honela gutti gorabehera, hamabi egun tardatu zuen laburkuntza bakoitzean. 3.594 (hiru mila bostehun eta laurogeta hamalau) liburuetatik bat bakarrik utzi zuen, eta 14.256.000 (hamalau miloi berrehun eta berrogeta hamasei) puntuetatik, 7.263 (zazpi mila berrehun eta hirurogeta hir) 6 (sei) puntuko bertso, guztira 43.596 (berrogeta hir mila bostehun eta laurogeta hamasei)

puntu. Guztira, 14.212.422 (hamalau miloi berrehun eta hamabi mila laurehun eta hogeta bi) puntu borratu zituen, 40 (berrogei) urtetan».

Baina horiek ere gehiegi izan, eta ezabatzen jarraitzen du poetak, ezabatu eta ezabatu, — murriztu, soildu, moztu, zerratu, kendu, sinplifikatu, estutu, baztertu, destilatu, eta esaten du Serrak, batez ere ezabatu—, harik eta puntu bakar batekin geratzen den arte.

«Eta bat utzirik, beste guztiak borratu zituen azkenean. Geratu zena, hau zen: 'Gizonaren gorputza/ buztinezkoa da./ Biharamunean, hil egin zen».

Hil ostean, infernura doa olerkaria, eta barre egiten dio bertan deabruak bere puntu bakar horretara heltzeko egindako bidearen berri jakitean.

«Eta bertso hau idazten ehun urte tardatu duzu? Hogei letra daduzka. Letra bakoitza idaztea bost urte kostatu zaizu. Hainbeste zorakeria izan ez bazenu buruan, zure txiki-denboran jakingo zenuen hori, kristau dotrina irakurri bazenu. Orain, pospolu baten garrean erreko zara eternidade guztian. Amen».

Puntu bakarra idazten bukatu, eta puntu bakar hori ere berea izan ez.

Ipuina bera beharrean, testuaren ipuintasuna doa hemen ezabatzen.

Zer puntutan utziko dio haren zirrimarrak zerbait irudikatzeari?

Harantz noa zuzen.

Gizonaren gorputza buztinezkoa da.

Eta hil zen.

Zangolotino.

Eta hil egiten da.

Eta, behin hiltzen hasita, zergatik hil behin bakarrik?

Ez al zen hau ipuin bat?

Edo behintzat agian-ipuin bat.

korapilatu, inklinatu, kurbatu, hedatu, batu, geruzaz, bikotetu, gainezkatu, gehitu, lotu, bilbetu, kidetu, lokarritu, hedatu, orekaz, simetria, frikzioz, luzatu, aipatu, behartu, jarraitu

jarraitu

Tabua

(edo harri berean bigarrenenez erortzeari buruzko egokitzen tragikomikoa)

Aingeru guardakoa Fabianen sorbaldaren atzean jarri eta xuxurlatzen dio:

-Kontuz, Fabian! Ezarrita dagoenez, 'zangolotino' hitza ahoskatzen duzun momentuan hilko zara.

-Zangolotino? —galdetzen du Fabianek larrituta.

- Ez, ez, zangolotino ez: zangolotino.

- Esaten nuen ba nik... —desenkusatzeko zaio Fabian, gaizki ulertuaz jabetutakoan—. Beraz, Zangolotino.

Eta, noski, hil egiten da.

Berriz ere.

Eta orain, bai, nahi baduzu, bota dezakezu giltza estoldan behera. Cortazarrek bere ipuinean iradoki baino ez duelako egiten, baina etxea beti dago hartuta.